

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### ZUIAKO UDALA

**Gurasoen elkartetzako 2019ko diru-laguntzak deitzen dituen Zuiako Udalaren Osoko Bilkura-  
ren 2019ko apirilaren 11ko erabakiaren laburpena**

BDNS (Identif.): 462991

Diru-laguntzak emateko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3 eta 20.8 artikuluetan aurreiku-  
sitakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitara ematen da, eta horren testu osoa Espainiako  
Diru-laguntzen Datu-basean kontsulta daiteke, <http://www.pap.minhap.gob.es/bdnstrans>.

#### **Lehenengoa. Onuradunak**

Zuiako ikastetxe publikoetako gurasoen elkarteak (IGEak).

#### **Bigarrena. Xedea**

Aipatu elkarten esku-hartzea bultzatzea eta 2018-2019 ikasturtean antolatzen dituzten eta  
ikasleen prestakuntza orokorrean eragiten duten eta ikasleen behar psikopedagogikoak artatzen  
dituzten jarduera osagarrien eta eskolaz kanpokoek gastuetan laguntzea.

#### **Hirugarrena. Oinarri arautzaileak**

Udalaren Osoko Bilkurak 2019ko apirilaren 11n onartu zituen diru-laguntzak eta ALHAOn  
argitaratuko dira.

#### **Laugarrena. Zenbatekoa**

Partidaren diru-zuzkidura 19.500 eurokoa da, eskolaz kanpoko jarduera eta jarduera osaga-  
rrietarako, eta 19.000 eurokoa, laguntza psikopedagogikorako.

Diru-laguntzaren zenbatekoa garatutako jarduera-motaren arabera izango da: ehuneko  
25etik ehuneko 70era bitartekoa, eta jarduera gehienetarako irizpide orokorra ehuneko 50 izango  
da. Behar psikopedagogikoetarako laguntzaren zenbatekoa aurrekontu-mugara heldu arte or-  
dainduko da, egindako gastuak eta ikastetxeko teknikariek egindako txostena aurkeztu ondoren.

#### **Bosgarrena. Eskabideak aurkezteko epea**

Hogei egun baliodun, deialdi hau ALHAOn argitaratzen denetik.

#### **Seigarrena. Beste datu batzuk**

Eskabidea zein deialdiaren oinarriak [www.zuia.eus](http://www.zuia.eus) orrian (Izapideak/Diru-laguntzak) edo  
Oinarrietan azaltzen dira.

Murgian, 2019ko apirilaren 11n

*Alkate-Udalburua*  
**UNAI GUTIERREZ URKIZA**